

ARABA

Iturrieta eta Kuartangoko sagardoak, munduko onenen artean

Erredakzioa 2022-10-07 12:30



Nazioarteko sagardo onenei emandako SISGA sarietan, Iturrieta Sagardotegiaren Sagezti gama berritzaileak premium aitortza jaso du zaporedun sagardoen artean; Kuartango Sagardotegiak premium kalifikazio bat (Su Sagardoa) eta zilar bat (Callabocas) lortu ditu.

Irailaren amaieran, Xixongo El Duque Jatetxean (Asturias) banatu ziren **Galako Sagardoen Nazioarteko XII. Azokaren sariak**. Guztira, 21 herrialdetako 71 sagardotegik hartu zuten parte, askotariko 230 sagardorekin. Produktu onenen artean, 13 premium kalifikazio (kategoria bakoitzeko onenak), 14 urre, 15 zilar eta 28 brontze banatu dituzte.

Manuel G. Busto aditua buru duen eta Asturias XXI Fundazioak izendatutako talde batek —eta, bide batez, sagardotegi parte-hartzaile bakoitzeko ordezkari banarekin— osatutako epaimahaiak **hiru sari eman dizkie Iturrieta eta Kuartango Arabako sagardotegiei**. Sagardotegi bakoitzeko jabe Juanjo eta Benito Peciña anai sagardogileek jaso dituzte aitortzak, hurrenez hurren.

Aramaioko Iturrieta Sagardotegiari dagokionez, **Sagezti sagardoak premium kalifikazioa** lortu du zaporedun sagardoen kategorian. Halaber, sagardo gama berri honetan Iturrietarekin lankidetzan aritu den Ola sagardotegiko (Irun) Sagezti ardoak brontzea lortu du kategoria berean.

Bestalde, Kuartango Sagardotegiak bi aitortza jaso ditu: suzko sagardoen atalean, **Su Sagardoak premium kalifikazioa** lortu du; eta lupuluarekin egindako sagardoen kategorian, berriz, **zilarra jaso du Callabocas sagardoak**.



Sagezi, sagarra eta ezia

Sagarra landatzen den lurretan, ohikoa da polinizazioan modu naturalean laguntzen duten erleen abaraskak aurkitzea. **"Ez litzateke sagardo naturalik egongo sagar ekoizleen lanik gabe, ezta erleen polinizazioaren jarduerarik gabe"**, azaldu du Juanjo Peciña Iturrieta Sagardotegiko jabeak.

Hain zuzen ere, biodibertsitatearen zirkulu hori ixteko xedearekin, Sagezi proiektua jarri zuten abian Aramaioko sagardotegian, sagardo naturalaren **elaborazio prozesuan ezia txertatuz**. Lankidetzat proiektu bat izan zen, gainera, Iparragirre eta Ola sagardotegiekin batera martxan jarritakoa. Juan Zuriarrain enologoak eta Leartiker zentro teknologikoak ere parte hartu zuten.

Horrez gain, "egungo kontsumitzaileak produktu eta aurkezpen berrien kontsumoarekiko duen interesari" erantzun nahi izan zioten. Horrela, 2021eko kanpainan, **sagarra eta ezia zuten lau edari** definitu eta garatu zituzten, pilotu gisa, Leartikerren instalazio eta upeltegietan:

- **Sagezia**, eztiarekin aromatizatutako sagardoa.
- **Sagezi ardoa**, 11 graduko alkohol dun sagar-ardoa.
- **Sagezi aparduna**, izenak dioen bezala, aparra duen sagardoa.
- **Sagezi txiki**, eztiarekin aromatizatutako sagardoa, botiletan aurkeztua.


"Sagar-muztioa eta ezia hartziduran txertatzearen emaitza gisa, **gama berritzaile bat lortu dugu**, ezia balioesten duten kalitate sentorialeko edari alkohol dunak", azpimarratu dute. Xixonen saritutakoak produktu mota berriaren lehen prototipoak izan dira: "Ekitaldia aparteko agertoki bilakatu zen lantaldeak proiektua aurkeztu ahal izateko, eta publikoak interes handia erakutsi zuen produktuekiko", ospatu dute.

Orain, definizio eta garatze fasea arrakastaz gaindituta, produktu barietate horien **ekoizpen komertzialari** ekitea izango da hurrengo mugarrria. Datozen hilabeteetan egingo dute hori, gutxienez 2023ko abendura arte.

Su Sagardoa

Bestalde, suzko sagardoaren artean premium kalifikazioa jaso du Kuartango Sagardotegiaren proposamenak, Su Sagardoak. **500 mililitro eta 10 graduko formatuan** aurkeztuta, 10 kilo sagar behar dira ekoizteko. Sagar-zukuari beroa aplikatuz eta ura lurruntzen utziz lortzen da, hasierako likidoaren %20 baino gutxiago geratzen den arte; likido hori legamiekin hartzitzen da. Ondoren, hartzidura gelditzen da, hondar-azukrearen 80 gramo utzita.

Azidotasunaren eta gozotasunaren arteko oreka handia du, asetzen du, baina puztu gabe. **Aroma-kontzentrazio handia** du, askotariko ukituekin: intxaurrak, sagar errea, karamelua, ezia, orejoiak eta laranja konfitatuaren oskola. Oso egokia da foieak, gaztak, postreak (esnekiak batez ere), izozkiak eta krematsuak laguntzeko. Aperitibo gisa balio du, baina baita koktelgintzarako oinarri gisa ere.



[Ekonomia](#)

ALBISTEAK MUGIKORREAN

ALEAren albisteak Whatsapp edo Telegram bidez jaso nahi dituzu?

WHATSAPP: Bidali ALEA hitza **645 66 86 02** telefono zenbakira.

TELEGRAM: Batu zaitez [@ArabakoALEA](#) kanalera.

ALEA da Arabako euskarazko aldizkari bakarra, eta zu bezalako irakurleen babesa behar du aurrera egiteko. Zuk ere gurekin bat egin nahi al duzu?

Izan zaitez ALEAkide

Erantzun ▼



Ikusienak



[Lehen elur malutak ailegatu dira Arabara](#)

Erredakzioa urt 17, 17:30 [Araba](#)




[Shakiraren abestiaren euskarazko bertsioa egin du Kai Nakaik](#)

Erredakzioa urt 14 [Araba](#)



[Film eta dokumentalen zikloari berrekingo dio Orbainek](#)

Erredakzioa urt 17, 09:30 [Gasteiz](#)



[Orain bai, negua](#)

Erredakzioa urt 17, 08:51 [Araba](#)



[Martxoaren 3ko Memorialean biktimen ordezkaritza indartzea eta konpromisoak betetzea exijitu dute](#)

[Arabarron memoria](#)

Erredakzioa urt 17, 12:00 [Gasteiz](#)



[Iheslariantzak o harrera gunea izango da Arana Klinika](#)

Erredakzioa urt 16, 16:07 [Gasteiz](#)

Arabako Alea komunikazio taldea

Zapatari kalea 8, behea
01001 Gasteiz, ARABA
Telefonoa: 945 71 60 09

harpidetza@alea.eus
erredakzioa@alea.eus
publizitatea@alea.eus



Alea.eus-eko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletzakoak direla aitortzen baldin baduzu eta baldintza berdinetan egiten baduzu.

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

araba **álava**
foru aldundia diputación foral



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA	ATARIA	BALEIKE	BARREN	BEGITU
DEUSTUALDEA PREST	ERLO TELEBISTA	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	HIRUKA		
KARKARA	KRONIKA	MAILOPE	MAXIXATZEN	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	UZTARRIA	
28 KANALA										

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)
[Tokikom publizitatea](#)